

EUSKAL HERRIKO KOMUNISTAK



I. BILTZAR NAZIONALA



EDUKI AURKIBIDEA

TXOSTEN POLITIKOAREN AGIRIA :

Sarrera

Kapitalismoaren krisia. Inperialismoa eta bloke menperatzailean kontraesanak.

Bloke menperatua. Hirugarren munduko mugimendu iraultzaileen azaleratzea.

Euskal Herria. Bidegurutzea bateratutako merkatuaren Europan.

Euskal Herria Europan

Testuinguru sozioekonomikoa eta klase borroka . Euskal Herria Klase borrokarako gune autonomoa.

Testuinguru politikoa eta momentuonoko nazio askapen borroka.

1978ko konstituzio ereduaren krisia. Proposamen berriak.

Autodeterminazioa: Apurketa, iraultza, iraultza.

Dialektika eta iraultza.

Ildo politikoa:

Autodeterminazioa eta lurraldetasuna.

Aliantza politika.

Lan arloa.

Presoak.

Euskara.

Hezkuntza.

Emakumea.

Gazteria.

Ekologia

Internazionalismoa.

Borroka bideak.

ERAKUNDE AGIRIA:

Antolakuntza kontuak

Erakunde motari buruz.

Antolaketa egitura.

Funtzionamendua.

Kritika eta Autokritika.

ESTATUTUEN AGIRIA:

Definizio orokorra eta esparrua.

Militanteen eskubide eta betebeharrak.

Barne funtzionamendua.

Oinarri organoak.

Nazio zuzendaritza organoak.

Ikur eta ereserkiak



TXOSTEN POLITIKOA

SARRERA

Mende eta erdi baino gehiago igaro ondoren, Manifestu Komunistaren irakurketak (1848), esplotatu eta esplotatzailerik gabeko, azken finean klaserik gabeko, gizarte bat lortzeko gizateriaren bilakaera, borroka, aurrerapen eta atzerapenei buruzko gogota eta bat egiteko puntu eta jarraipen bat egitera garamatza.

Historian zehar eginiko lanaren banaketak gizarte kolektibitate oro banatu dituen muga ezarri du, beren abantailazko egoeratik besteak oinperatzen dituztenen, eta ekonomia guztien sostengatzaile izandako lanarekiko, aberastasun iturri bakarra, menperatuen artean..

Sistema kapitalista, - produkzio bitartekoen desjabetzearen eta "lan indar" merkantziaren esplotaziotik sortua -, plusbalioa eta egungo metatzea sortzen diren "produkzio prozesuan" sortu eta ugaltzen da, zeinen hedapenak eta kontzentrazioak planeta mailako egungo polobakarreko inperialismoa sortu duen.

Jakina da gauza asko aldatu dela. Bloke sozialistaren erorketa ikusi dugu, prozesu sozialistaren aurrerapena moteltzen duten produkzio eredu berrian ebatzi gabeko kontraesanen ondorioa (produkzio bideen kontrola, lanaren banaketa, produktuaren banaketan azaldutako sektore pribilegiatuen azalpena...), eta guzti hori jazarpen inperialista izugarriarekin batera.

XX. mendearen erdialdetik aurrera ez dira indar produktiboak soilik era erraldoi batean garatu direnak, bereziki informazio teknologia eta lanaldiaren prestakuntza teknikoa, baizik eta lan harremanak berak ere gaur egun, euro eta Maastrichten Europan, gure pentsalari K. Marx eta F. Engels-ek industrigintzaren hasierako Ingalaterran deskribatutako langileria ezagutzea kostatzeraino mutatu baitira.

Langile klasea bera, klase homogeneoa izatetik urrun, zatikatu eta elkarren artean liskartu egin dute. Jabedun klaseen ideologia langile askok bere gain hartu du, zatiketa eta beren arteko borroka sortuz, bertako sektore bat "langile aristokrazia" modura jarduteko erosiz. Langile hauek, burgesia txikiarekin batera, "klase ertaina" edo klase borrokaren leuntze koltxoi bihurtzeko tirabiran dabil-tza. Kasu askotan hori izatera iritsi da hainbat langile baita ere sindikatuen kide izateari utzi edo/eta hauetatik urruntzera bultzatu dituen egoera. Gaur egun langile klasearen alienazioa gurasoek ezagututakoa baino askoz handiagoa da, nahiz eta edo hain zuzen ere kontsumoa ikaragarri handitu izana-gatik.

Langileriaren lerrokadura, kapitalismoaren fase berantiarrean, aurreko garaietan baino askoz handiagoa da, eta plusbalio erlatiboen (produktibitatea) gorakada izugarri batean oinarritzen da, kapital konstantearen (produkzio bideak) handitze ikaragarriaren laguntzaz, hirurogeita hamargarren hamar-kadan amaitutako zikloaren fase gorakorrean, naturaren suntsiketa basatiarekin batera, aberastasun kopuru handi bat, erlatiboki zatikatua (herri kontsumoa), sortu du.

Eta komunista baten lehen betebeharra inguruko errealitatea sakonki ezagutzea da, ez kontatu zioten errealitatea, irakurritakoa edota amestutakoa, errealitatea bere lan iraultzailearen lehengaia delako. Marximo-leninismoa bere lanabesik garrantzizkoena.

Hala are, itxurari men egin eta 'langilegoaren amai- era' aho batez iragartzen duten arrazonamendu postmodernetatik ihes egin behar dugu. Proletal-goak mutazio sakonak jasan dituen arren, bultzatu nahi dugun aldaketa iraultzailearen motore indar konplexua osatzen jarraitzen du. Horregatik bai mundu bai nazio mailan klase osaketa berriaren analisiari dei berezi bat egingo diogu eta baita ere horregatik, aurrez errealitatearekin erkatu gabe, aldatu ez diren eslogan zaharrak gordetzearekin ez gara konformatuko.

Iraganeko sektakeriak baino urrunago, Komunistok Marx, Engels, eta Lenin, zein historian zehar, zintzotasunez eta lan eginez, ideal komunistari hainbeste eman dioten gizon eta emakume guztiek bezala, oinordeko aldarrikatzen gara, marxismo-leninismoa batez ere dialektikoa baita. Eta Marx berak David Ricardo edo Adam Smithen ekonomi doktrina klasikoa hartu behar izan zuen bezala, "bere kontraesanen azaleratzeak, konpondu ez arren, konpontzeko arazoa aldarrikatzen zutelako", era berean orain esaten dugu ezer ez dela amaitu, XXI. Mendeko gizateriak planteatzen dituen arazo berriek mende bereko, eta bidegabeki baztertutako edo ahaztutako beste batzuetako, soluzio eta egi-leak eskatzen dituela.

Honela europar bloke sozialistaren birrintzearen ondoren - produkzio eredu berrian konpondu gabeko barne kontraesanen ondorioz eta kapitalismo inperialistaren jazarpen izugarri eta etengabeko boikotarekin batera- munduak orain zur eta lur so egiten dio aldebakarreko ipar-amerikar inperialismoaren benetako aurpegiari. AEBek, potentzia kapitalisten artean potentzia kapitalista lider eta ahalguztidun, gizateriak inoiz aurre egin duen arriskurik handiena ordezkatzeko dute. Besteren baliabideen irenste ase ezinak eta eztabaida-ezin eta eztabaida gabeko potentzia militar dela jakiteak ematen dion nagusitasunak, ezkutatu behar izan gabe, planeta mailako izu eta harrapaketa kan-



paina abiatzea ahalbidetzen dio. Herri batek ere jadanik ez dio ihes egiten harrapakaria Yankiari.

Jadanik ez da beharrezkoa sozialdemokraziaren giza aurpegia¹. Jada ez da nazioarteko erkidegoaren zilegitasun eta justizia itxura egiteko nazioarteko burokrazia organismorik behar. NBE-k, azkenean, bere biluztasun ideologikoa azaltzen du: Ipar-amerikar ugazabaren bilerak zuzenbidearen togaz jantzen dituen eta munduko jaun eta jabe denaren etengabeko bidegabekeri eta gehiegikeri baino ez direnei zilegitasun eta legezkotasun zigiluak jartzen dizkien gorteko eskribauaren patu tristea.

Hiroshima, Nagasaki, edo Vietnam pasa den mendean jasan zituztenek, Jugoslavia edo Afganistan-en txirotutako uranioaren zaporea probatu dutenek, Latin Amerikako torturatu eta desagertuek; Afrikan eragindako tribu gudetan motz eta sarraskitutakoek... palestinar anaia eta irakiar gudularia "amerikar amets handiaren" lekuko zuzenak dira. Jadanik "Amerika amerikarrentzat" esaerak ez du balio. Ipar-Amerikar lehendakari megalomano, integrista eta zoroaren konsigna "mundu osoa AEB-entzat" da orain. Horrekin batera, beste potentzia inperialista (Alemania, Japonia, etab) eta neokolonialistek (Espainiar Estatu, Frantziar Estatu, Ingalaterra, etab) "yanki"-ekin irrika eta krudeltasunean lehiatzen dute, herri eta kulturak zapaldu eta lapurtuz (kurdu, txetxeniar edota palestinar herriak, etab.).

Horregatik, gaur duela 150 urte baino hobeto, kapitalismoa basakeri eta suntsiketa dela esan dezakegu. Beharrezkoa dela, gaur inoiz baino gehiago, gizateriaren aberri sozialista handia eraikitzeko bera suntsitzea. Horregatik komunisten lana, gaur inoiz ez bezala, hau da: ezinbesteko aldaketa hori ahalbidetzeko baldintzak eman daitezen hezkuntza sozialista eta langileen antolaketan kolaboratzea. Gertuenetik hasiz, herrian bertan baina ikuspuntua duintasun hitzak, azkenik, hezur eta mamia edukiko dituen gizateri baten hodeiartzean izanik.

I. KAPITALISMOAREN KRISIA. INPERIALISMOA ETA BLOKE MENPERATZAILEAN KONTRAESANAK

Mundu ordena berriak pasa den mendeko kapitalaren behin betiko metaketa fasea amaitu nahi du era global batean. "Pentsamendu bakarrak" "historiaren

¹ Bigarren mundu gudaren ondoren hasitako kapitalismo berantiarren oparotasun faseak, inspirazio keynesiarreko NMF eta MB sortzearekin batera, Estatu sozial delakoaren lorpenekin batera (segurtasun sozial sistemak, kontratazio kolektiboko politikak, lan indarraren prestakuntza, babestutako etxeak, ingurugiro politikak, zerbitzu publikoak...) guda hotzean zehar gizarte zibilaren gainera hegemoniatatik lehiatzen zuen, bloke sozialistaren aurrerapen ekonomiko eta sozialek sustatutako langile mugimendu indartsua gelditzeko asmoz. Ezin da ahaztu bigarren mundu gerla SESBen irabazi zela eta gudaroste aliatuak hogeita hamargarren hamarkadako greba handiak burutu zituzten langilez osatuta zeudela.

amaiera"² bezala definitzen duen inperialismoaren fasea da.

Lehen eta bigarren mundu gudak, batez ere, errugabeen odol isurketa bat izan baziren, lehengai iturburu oro menperatzeko kapitalismoaren krisi egoera zikliko berriak, lehen mundu potentziak, AEB, terrorismoaren aitzakiapean, gizateriaren historian inoiz egin den menerapen kanpainarik handiena garatzera behartzen du.

Inperialista yankia, orain arte inongo inperiok inoiz sortutako armarik hiltzaileen eta kontrol eta ideologi menperatzaileen jabea, errealitatean, buztinezko hankak dituen erraldoi bat da. Alde batetik bere militar industria astunak zorpetze eta molokotera behartzen du. Aurtengo defizit errekorrak (480.000 milioi \$) ordain ezinezko zor bat osatzeko, oso beharrezkoak dituen baliabideak lapurtzeko (Irak zen, 2003-rarte, bigarren -115.000 milioi upelekin- petrolio erreserbarik handiena), eta hirugarren munduan ad hoc eragindako gudetan saldu ez duten gerla material guztia gastatzeko (birjartzeko), etengabeko harrapaketa gudak behar ditu. Hori da BPG hazteko errezeta zaharra. Bestalde finantza kapitalak, produktotik urrun dagonen logika espekulatzaile batez eta moneta politiken kontrol zorrotzaz munduko Botere ekonomikoa menperatu eta biltzen du.

Honela FAO, UNICEF, etab instituzioek munduko populazioari buruz argitaratutako datuak beldurgarriak dira. Aski da gose eta gaixotasun sendagarriengatik eguneko 30.000 haurren heriotza aipatzea (paludismoa, mingorria, tuberkulosia, kolera, etab.).

Aldi beran gainontzeko Estatuari lehoi antzeko akordioak inposatzen zaizkie. Latin Amerikan ALCA eta Merkataritzarako Mundu Erakundean (MME), beraien produktoreen produktuei dirulaguntzak ematen segitzen den bitartean, herri pobreen produktuenganako muga-sari desarmea³.

Herrialde hura dominatzen duen kapitalismo inperialistaren izaera, bere izatea, erabat harrapari eta suntsitzailea da, Lurreko gainontzeko Herrirentzat

² Bloke sozialistaren erorketaren ondoren agertutako mundu ordena berriak kapitalismoak berak *historiaren amaiera* bezala definitzen duen pasa den mendeko kapitalaren behin betiko metaketa fasea amaitu nahi du. Kapitalaren metaketa eta bilketak produkzioa mundutu dute eta Estatu-nazio historikoak gainditu ditu. Aski da 200 enpresek munduko produkzioaren laurdena baino gehiago kontrolatzen dutela esatea. Fase berri honetan finantza eta espekulazio kapitalak zuzenean produktiboa denaren gain duen menerapena ikusten da Kapitalaren metaketa global eta azeleratu prozesu hau sustraitu duten moneta politiken erabilerarekin batera. Neoliberalismoak, beraz, bizimodu egoera honen eraikuntza teorikoa ordezkatzen du.

³ Kontraesan berriak sortu dira herri pobre eta aberatsen artean. Desberdintasun sozial eta lurraldeko berriak sortu dira Estatu zaharrek bloketan biltzen diren artean, EB, AEBK, asiar hego-ekialdea etab, eta enpresek beraien erabaki guneak, herri aberatsetan, produkzio eta poluzio guneetatik, herri pobreetan, banatzen dituzte. NATO da mundu mailako armada bakarra eta NBE *bere nagusiaren ahotsa*.



eta, baita ere, planeta bera eta bere baliabideentzat.

Munduko jendarmeak ez du beste erabaki gunerik ez eta oilategian areriorik onartzen. Hala ere, hori bai, lan zikinak exekutatzeko jarraitzaileak baimentzen ditu: Blair, Aznar eta Berlusconi bezalakoak papera izan berri da hori. Jaialdi inperialistaren zaborra ustiatzen dutenak. Eta hortik lehen hain jatorrak ziren europar "bazkide"-ekiko norgehiagoka ageria: Alemania eta Frantzia, bereziki, baina baita Errusia ere.

Borroka inter-inperialista hauek, merkatu 'birjinak' kontrolatzeko antsiak eta, sozialismoa utzi izan arren, sektore publiko garrantzitsuak eta neurri neoliberalenganako nolabaiteko erresistentzia gordetzen zuten estatuak zapaltzeko beharrak, Jugoslaviaren suntsiketa eragin zuten, Alemania eta Vatikanok Eslovenia berehala aitortuz.

Azken hauek, ez harridurarik gabe, jada ez bakarrik ez dutela Irakiar harrapakina banatuko, baizik eta Ekialde Hurbileko ingurune osoan interesak, inbertsioak eta eragina galduko dituztela egiaztatu dute. Bloke menperatzaile barruko liskar hau, suposatu behar da, AEBn militar-industri ekonomia ase ezinak Herri eta Herrialdeen harrapaketa handiagoa behar duen heinean areagotzen joango dela. Txinatar erraldoia - munduko hazkuntza indizirik handienaz- epe ertainera lehiakide bikain bat izan daiteke. Eta ez dirudi burugabea denik, kezkatu, hain zuzen ere iragan den mendeko bi guda handien arrazoia hori izan zela ohartzea. Munduko aberastasunaren, bere merkatuen eta bere lehengai, ur eta petrolio banaketa, nagusiki.

Latin Amerikan, ipar amerikar inperialismoak odolustez egokiro atzera bota izanagatik huts egindako (Kolonbia bezalako salbuespenekin) iraultza saiakeren ondoren - Txile, Nikaragua, El Salvador, inperioari aurre egiteko modu berriak azaltzen hasi dira - Venezuela, Brasil, eta berrikiago Ekuador...- bertako herri borrokan oinarriturik, baina epe motz eta ertainera segurtasunik gabeko emaitzekin. Kubak soilik irauten du - eta aurrera egiten du-, oportunitate eta sasi-demokrazia burgesari amore eman gabe, duintasuna eta tinkotasuna aurrez jartzen dituen sozialismo eredu batekin.

Horregatik beharrezkoa da, premiaz, herri txiroen eta garapen bidean dauden herrien eta planetako jendearen mundu mailako akordio handi bat gizateria beraren bizi-iraupenaren defentsan, Seattle, Genoa, Porto Allegre... eta behar hainbat forok osatzen dute nazioarteko beste ordena baten aldarrikapenaren hazia. Dagoeneko hainbat milaka milioi izaki eta ehunka Herri direlako bizi iraupen hutsaren alde behin eta berriz aldarrikatzen direnak. Hori izan da, ez hala beharrez, Fidel Castroren azken hitzaldietako baten edukia, kapitalismoaren mehatxua eta gizateria eta bere etorkizunarentzako

izango dituen ondorioak.

II. BLOKE MENPERATUA. HIRUGARREN MUNDUKO MUGIMENDU IRAULTZAILEEN AZALERATZEA

Herri eta gizaki gehienentzat bere zorigaitzen atzean usurpatzaile Yankiaren esku luzea topatzea gertaera komun bat da jada. Bai zuzenean (Vietnam, Laos, Korea, Afganistan, Irak, Jugoslavia etab.) zein tartekatutako Estatu terroristen bidez (Israel, Espainiar E., Erresuma Batua, etab.) gringoaren ekintza harrapatzaileak masa pobreen etsipen eta gorrotoa pizten du.

Hala ere, ez dira gutxi, ingeles kolonia garaiko Indian aspaldiko oroimenekoa den zipaio papera betez, aurrez munduko jabeak erositako erregimen ustelak. Amerikar diruaren zerbitzura dauden armada eta polizia amorrutik erreprimitzen dute Herri horien saiakera askatzaile txikiak ere. Horregatik, bertako burgesia beraren zapalketaren aurrean, haiek beren borroka herri erakunde armatuen bidez adieraztera behartuta daude, bere izaera terrorista ezkatuzeko, hain zuzen ere, zapaltzaileak berak egokiro "terroristatzat" izendatu dituenak.

SESBren porrotak, beste gauzen artean, mundu mailako sozialismoaren posizioen (Varsoviako pak-tua, NBEko Betoa) defentsa globalean zurtasun bat ekarri du bere barne, salbuespen txiki batzuk izan ezik (Kuba, etab) sistemari aurre egitea ahalbidetzen dion inongo kausarik ez dela munduan existitzen iradokituzeko, eta ondorioz matxinoari "terrorista" etiketa jartzen zaio, hau da, gaizkile komun, apolitikoko, fanatiko eta zoratu batean bihurtzen zaio.

Irailak 11ko New Yorkeko gertaerek eraginetako baten modura ura beren errota politikora bideratu eta, nazioarteko erkidegoaren aurrean, dena terrorismo dela eta terrorismo guztiak berdinak direla alegatzeko nagusi handiaren menpeko zenbait erregimenen baliatze zitala ekarri dute (Ad:Espainiar E.), euskal barne erresistentzia guztia legez kanporatu eta erreprimitzeko lizentzia ematen dielarik.

Espainiar Estatuan hau argi eta garbi egiaztatu ahal izan zen, Madrilen M-11ean, islamistek Irak-eko inbasioan espainiar estatuaren parte hartzeari erantzunez burututako sarraskia ETA erakunde armatuari leporatuz. Atentatu honek, Partidu Popularrak eta aldeko hedabideek burututako manipulazioarekin batera Aznarren erregimenaren erorketa eta bere alternantzia naturalaren, PSOE, etorrera azkartu zuen.

III. EUSKAL HERRIA. BIDE GURUTZEA BATERATUTAKO MERKATUEN EUROPAN



1.- EUSKAL HERRIA EUROPAN

Historiografiak, antropologia, linguistika eta genetikaren azken ekarpenekin batera Euskal Herria, Euskararen Herria, europar populazioaren hastapenetan kokatzen dute, indoeuroparren aurretik. Erromatar inperioarekin batera iragandako zazpi mendetako elkarbizitza tolerantziaz burutu bazen ere, ez zen hala gertatu goduen etengabeko etorreararekin eta, nola edo hala, borroka Carlo Magno baino lehenagotik gure garairaino hedatzen da. Erresuma Baskoiak VIII. mendetik XVI. menderarte mantendu ahal izan zuen soilik, Estatu moduan, nolabaiteko jarraitasuna.

1872-1876 tarteko gudako porrotaren ondoren, Foruak bere osotasunean ezabatuak izan ziren eta euskal Nazioa etsipen sakon batean murgildu zen, herri bezala desagertzeko arriskuan, ez bakarrik industrializazioaren ondoriozko hurrenez hurreneko etorkin-oldeengatik, baizik eta batez ere, politikoki antolatzeke antzinako modua (adua, zerga, hizkuntza, eta abar) zigortzen zuten eten gabeko neurri juridiko eta ekonomikoengatik.

Bazterketa malenkoniatsu hori Sabino Aranek erraz katalizatzen du, erabateko itxura integrista, etnizista eta burgesa duen lehen mugimendu nazionalista bultzatuz. Horrela, bertako masaren atxikimendua berehala eskuratzen du eta, tesi sozialistetan bildutako kanpotar langile masarekin batera, 1936an errepublika - Estatu eredu bezala - , Euskal Herriaren, euskararen herriaren, nortasuna babestu eta berreskuratuko duen Estatutu batekin batera, defendatzeko prest dagoen fronte bat osatzen du.

Bestalde, 1936-39ko gudan zehar, matxinada faxistaren kontra, ezkerreko lehen mugimendu abertzaleak azaltzen hasi ziren (EAJ-ANV, zein militante komunista eta anarkista ugari, abertzaleak baita ere).

Agirreraren alderdi kristau-demokratak erakutsitako geldikeri eta ezintasunaren ondorioz guda galduta, gaurko eguneraino nazio askapena eta klase borroka uztartzen saiatu den ezker abertzale moderno osatuko duen erakunde multzo bat sortzen da.

1998an, Lizarra-Garazi delako itunak, langileriak eta klase herrikoiek euskal burgesia ertain eta txikiarekin elkartuz desiratutako aliantza taktikoa osatzen da, euskal nazioa zapaltzen duten espainiar eta frantziar Estatuak, behingoz, aurre egiteko borroka bere gain hartzeko asmoz. Hor egon gara komunistok eta, aldi bereko klase borrokarik gabeko nazio askapenik ez dagoela argi adieraziz, lehen bai lehen, gauzatu beharko den aliantza puntual horren alde apustu egiten jarraituko dugu.

Oraindik jaiotzeaz dagoen Europar Konstituzioak, berriro ere, estaturik gabeko nazioen borroka baztertzeko asmoa dauka. Estatu-nazio zaharrak dira,

multinazionalen interes soilerako eredu ekonomiko eta sozial batez gain, iragandako loria mendeen gisako politiko-lurraldeko egitura inperialista bat inposatzen saiatzen ari direnak. Aurrez bere etxea eta bere famili ekonomia txikia indarrez kendu zaion inmigrantearen aurka, gainera, bere mugak hesitu eta ixten dituen Konstituzio bat. Azken batean, merkatarien Europarentzat baino egokia ez den Konstituzio bat.

Salonikako batzarrean estatuak adostutako eta Estatu espainiarrak 2004ko ekainean berrestea hitz eman duen "Europar Konstituzioak", azken koitaduen ameskeriak suntsituko ditu, langile eta herrien aurkako Europa, Kapitalaren Europa, finkatuko da behingoz.

Europa berria Kapitalarentzako gune bateratua izango da, merkantzia eta moneta zirkulaziorako eremu libre, MMErekin hitz emandako Zerbitzu Komertziorako Akordio orokorraren barnean oztoporik gabe pribatizazio prozesua hasi dezaten.

Bestalde, ordainean ez da eremu sozial bateratua begiztatu ere egiten, langileen eskubideen defentsa zaintzeko. "Nekazal Politika Bateratua" eramaten da aurrera, sektoreko multinazionalen neurri egina, milaka nekazari txiki langabeziara bidaliko dituen.

Eta ezin liteke beste erara izan. Europa, AEBen eskutik, "terrorismoaren aurkako prebentzio ekin-tzak" hartzea hitzartzen du, planetako edozein lekutan berehalako esku-sartzeen bitartez (hau da hau, bigarren lerroko inperialista bokazioa dutena!). Era honetara Hobbes-en Estatuaren bertsio gordina sortzen dutelarik, bere polizial eta judizial eremu bateratuarekin, ongi gotorturik.

Kontsekuenteki, emigranteentzako bigarren mailako kategoria sortzen da "epe luzerako komunitatez kanpoko erresidente" izen eufemistikoarekin, eta, aipatu ere egiten ez diren Herriek ateak ixten zaizkie, konstituzioaren funtsezko eginkizuna den batasuneko estatuen lurralde osotasuna bermatuz ordea (Aznarren ekarpena), ala nola "barne segurtasuna eta ordena publikoa". Maastrichten "Europa" baten esparrua erabaki egin zen, ia kritikarik gabe, autoizendatutako ezkerrek onartu egin zutena.

Gauzak honela, Europako ezker iraultzailearen bateratzea premiazkoa da, ezker erreformistatik aldendutakoa (eurokomunismoa - sozialdemokrazia); baina, estaturik gabeko Nazio mugimenduen eta sistema kontrako mugimendu alternatiboen bultzakadarekin.

2.- TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA ETA KLASE BORROKA. EUSKAL HERRIA, KLASE BORROKARAKO GUNE AUTONOMOIA

Euskal Herriko hiru milioi biztanle eskasak, eta



diasporan hala izatea irrikitzen dutenek, hainbatean saminez, merkataria eta askatasun formalen Europar arraro samarra den fenomeno baten protagonista sentitzen dira: nazioarteko legediak oinarritzak deklaratuak daukan eskubide bat erabiltzeko saiakera, Herrien autodeterminazio eskubidea.

Euskal Herriak bere etorkizuna, bere antzinako hizkuntza, bere idiosinkrasia segurtatzearen, eta aldi berean, kapitalismo eurozentrikoaren zentroan bertan, estatu sozialista baten bidez, azken finean gizarte zuzenago bat eraikitzearen, Europako nazioen artean txoko bat egiteko borrokan ari da.

Neurri gabetasun hau, gainera, nolabait ere paradokikoa da. Alde batetik, bere eskubideak berdintasunez erabiltzearen, euskaldunen Herriarentzat Estatu egitura bat eskatzen bada ere, kontinenteko gainontzeko Herri eta Estatuakiko, bestalde, Estatu Sozialista bat eraikitzean, noiz edo noiz, definizioz, Estatu beraren suntsiketari aurre egin behar zaio (klaserik gabeko gizartearen bidean, Komunismoaren bidean). Errealitatean ez da kontraesan hori existitzen.

Euskaldunen Herriak, orain, Estatu baten premia dauka bere izatea mantentzearen menderatzen duten Estatuengandik datorren arriskuari atzera eragingo dion beharrezko indar bat ezinbesteko zaiolako. Estatuak, beraz, Herriek nazioarte mailan azaltzearen errespetatuak eta kontutuan hartuak izateko bermea da.

Baina, aldi berean, Komunismoaren lortze horrek, planetako gainontzeko Herriekin bat eginez, ezinbestez, eta guzti haietzat, eta batera, ordezkatzeko duen klase borroka desagertzearen ondorioz, Estatu Sozialistaren desagertzea berarekin dakar. Honek, logikoki, denbora espazio handiago bat eskatzen du eta beraz une honetan lehentasuna herriaren beraren, kulturaren, hizkuntzaren eta bere idiosinkrasiaren mantentzea dira.

XIX eta XX. mendetako industrigintza handiaren ondoren, E. Herriaren bereziki gogorra, langileria sendoa bat sortuz, pasa den mendeko 70. hamarkadako desindustrializazioan bilakatu zen. Beste behin ere sistemaren mundu mailako krisi ziklikoek industri birmoldaketa basati bat eta milaka lanposturen galera eragin zuten.

Alderdi soziologikoan, langileria atal ezberdinen mutazio kuantitatibo eta kualitatibo bat ekarri zuen. Espainiar agintepeko sindikatu handiak "industrial birmoldaketa"ren kaleratzearen ordain-sariaren banaketan eta Moncloa sindikalaren Itun zoriotsu baten ustezko osaketan gogor aritu ziren. Errealitatean sindikatu hauek aspaldi utzi zioten, jadanik sarreren %20a ere ordezkatzeko ez duten, sindikatu kuotekin funtzionatzeari. Alderantziz FORCEM bidezko "prestakuntza" da, Gobernu eta patronalarekin ados jarrita, zentral sindikal haiek langileria bere osota-

sunean egiten dioten lapurreria ezkutatzeko duen estalkia.

Eta esker oneko "funtzionario sindikal" multzo handi bat autozerbitzu eta hautaketarentzat bizi diren artean, langileria zaharra "urrezko erretiroan" aurrerajubilatu izan zen, beren semeek zabor-kontratu delakoen aldi baterakotasun betiko eta sistemati-koa, esplotazio bizia eta lan istripuak ezagutu zituzten artean.

50.etik 70. hamarkadara bitartean Euskal Herria inmigrante uhaldetan iritsi zen langile askok Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokan parte hartu baino nahiago izan zuten beren jatorrizko tokietako erretiroa goxoa. Dena den, beren seme-alaba askok, Euskal Herriaren jaiotza, beraiek Euskal Herriaren burutzen zen klase borroka ez zen beste ingurune geografikorik ez zeukatela ulertu zuten.

Langileria gazte eta berri honek, teorikoki prestakuntza handirik gabea baina, lehen aldiz, bere gurasoekin baino hobeto biziko zela ulertzeko garaian oso praktikoa, hasieran "pasotismoa" hartzen du errealitateak ihesbidetzat, geroago ordea, beste mota batetako elkarteetan edo "nazionalista" joerako beste sindikatu haietan (batez ere ELA eta LAB, gaur egun, bien artean, Euskal Herriko gehiengo sindikala osatzen dutenak) sartzen hasteko.

Klase osaketaren eraldaketa hau arlo politikoan islatzen da baita ere. Politikaren euskal nazio ikuspuntua daukaten alderdien gehiengo bat sendotu da. Espainiar "sozialismo" klasikoaren sektoreak, Nerbioiko ezker aldea bezalakoak, gainbehera doaz (Portugalete, Sestao, Santurtzi etab, bosgarren aldiz nazionalismoa da lehen indarra) "sozialismo" sasi-baskista delakoa, Gipuzkoan adibidez, sendotzen den artean.

Euskal Herria lehen munduan ezarritako zerbitzu gizarte batetan eta europar errentaren batz bestekoarekin parekagarria den gizarte batean bihurtu da behin betikoz (nahiz eta ez diren gutxi soldata irri-garri kasuak, batez ere kolektibo zehatz batzuentzat). Langabezi tasa murriztuz doa eta gizarte laguntza politikek, neurri batean, gizarte ezberdintasunak leuntzen dituzte.

Etxebizitza eskuratzea, adibidez, ezinezko bihurtzen da, nagusiki, bi faktore direla eta: lur zoruaren espekulazioa eta euroaren sarrera baino lehenago diru beltza garbitzera zuzendutako erosketa eskera batengatik edo, sinpleki, "adreilu inbertsioa" aukera interesgarria izanda.

Aipatu, autonomi aldean, zerbitzu sozial eta etxebizitza politika leuntzaile eta zuritzaile horiek sozialdemokrata eta baskongatu autonomista joerako gobernu burges baten bazkide modura ezarritako alderdi sasi komunista eta errebisionista batek (IU-EB) aurrera eramaten dituela.



Azken hamar urteotako hedakuntza ekonomikoak, laneko ezegonkortasun eta prekaritatearen laguntzaz, faltsuki behera egindako langabezi tasa agertzea lortu du. Gainera, kontsumokeriaren politika suspertzailea dela medio, BPGa igo bada ere, famili zorpeketa ere igo egin da.

Hala ere oso argigarriak diren datuak daude. Alde batetik, kontratuen %10 baino gutxiago dira mugagabeak eta, bestalde, oso interes mota baxuengatik sortutako famili zorpetze indizeak, sistema gutxitze eta krisi zikloan sartze hutsaz batera gainbehera baten etorrera iragartzen du. Gaztea goitik behera zorrez josita dago eta ez dauka aldi baterako zabor-kontratu ziztrin baten bermea besterik. Edozein aldagaik huts egiten badu, domino efektuak langileria osoa ikusi dugun krisirik larrienera arrastan eramango du – eta zuzeneko ondorioz beste klase ertainak ere bai.

3.- TESTUINGURU POLITIKOA ETA MOMENTUONOKO NAZIO ASKAPEN BORROKA

Azken hamarkadetako euskal langileriaren osaketa eta eboluzioaren analisiaren azalpenak, halabeharrez, ekintza politikoarengan isla argi bat dauka. Bere osotasunean, euskal gizarteak dituen espainiar eta frantziar bizilagunengandik ezberdina den Herri zahar bat dela jakinik, nazio kontzientzia barneratu du.

Honi buruz, E. Herrian espainiar Konstituzioa onartu eta inposatu ondoren 25 urte igarota, eta, euskal eta espainiar, herritarrak narkotizatu zituen trantsizio baten ondoren, E. Herrian trantsizio anti-demokratiko honen inposaketa izaera agerian geratu da. Era honetan gero eta desberdinu eta liskartuago dauden bi sektore nabarmentzen dira: espainiar bloke konstituzionalista eta euskal herri blokea.

Lehena Neguriko eusko-espainiar oligarkiak, klase ertain espainiar eta PSOEren langile itxurak lerrotatu eta nahastutako hiritar burgesia txiki eta langileriaren sektore batek osatzen du.

Bigarren blokea langileriaren gehiengoak (ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, ENHE, HIRU) eta bertako burgesia txiki eta ertainaren zati batek osatua da. Bi blokeen arteko liskarra gero eta bortxa handiagokoa da eta espainiar Estatuak berak “euskal gatazka” delakoa “casus belli” modura darabil. Honetarako, ikaragarritzko aparatu politiko-mediatikojudizial bat abiatu du, kosta ala kosta, edozein burujabetasun ekimen atzera botatzeko.

Guzti honekin, eta hain zuzen ere horregatik, E. Herria bere erabakiak errespetatuko diren subjektu politiko izan beharrenden xedea eta gero eta argiago azaltzen da. Nazioen arteko- Espainia, Frantzia Vs. Euskal Herria- eta nazionalisten arteko – euskal

herritar eta espainiar- gatazka nabariak itxurazko ezker-eskuin norgehiagoka alde batetara uzten du. Sistema demokratiko-burgesaren maskarak, bere askatasun eta eskubide formalekin, zokoratzen dira eta faxismoaren aurpegia, berriz ere, E. Herrian porrot egindako trantsizio bat dela eta hurbiltzen ari da. Klase eta Herri zapalketaren mamiak bere hartan jarrai zezan azala aldatzea gura zuen trantsizio hura.

Adierazpen askatasuna izan da espainiar oldartze faxistak bota duen lehena – EGIN, EGIN IRRATIA, EGUNKARIA eta abar-. Alderdi eta erakundeak legez kanpo uzten dira – JARRAI, AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEAK, BATASUNA, HAIKA, SEGI, ASKATASUNA edo 250 herri hautagaitza- eta tortura, hilketa, errefuxiatuarenganako jazarpena eta ez ohiko indarra hartu duten presoenganako suntsipen politika. Espainiar Estatuak, Frantziar Estatuaren ezinbesteko laguntzaz, bere barne gatazka dela eta “terrorista” zigilua lortzeko lanean dihardu eta honenbestez desio duen ikuspuntu bakarretik aurre egin ahal izan: errepresio polizialjudiziala.

Errepresioa euskal gizartearen hainbat ataletan ezarri eta sakontzen da. Aski da erakunde edo pertsona bat edo beste “ingurune” kide dela adieraztea, halako muntaia estrajudizialaz, errepresio makina osoa abian jartzeko: atxiloketa-kartzela-isun etab. Zuzenbidea zabaldu eta espainiar Botere faxistari komeni zaion tokian itsasten den txikle batetan bihurtzen da. Honen inguruan, bertako zipayismo politiko eta polizialaren kolaborazio errepresioa guztiz erabilgarri zaio. Ondorengo hauteskundeek horren froga argia utzi dute. Estatu ezker abertzalearen edozein kandidatura legez kanpo uzteaz arduratzen den bitartean, bertako alderdi politikoez, egoera hau salatu arren, demokratikoki hautatu den baina emaitza ofizialez kontabilizatu ez den ordezkari hori bere gain hartzeaz ez dute zalantzarik egiten.

Guzti honek, diktadorearen heriotzaren ondoren menerapen eredu demokratiko-burgesak, berriro ere, molde frankistako era diktatorial hari bide eman diola garbi adierazten du. Izatez, haien oinordeko politikoez, eta batzutan pertsonalak, dira gaur sistemaren gako egiturak gobernatzeko dituztenak.

Sozialdemokraziari dagokion paper nardagarria-sistema kapitalistari berari zilegitasuna eman eta kudeatu- 14 urtez beteta (1982-1996), klan erreazionario eta eskuin muturrekoek osatutako eskuin atzerakoienak, Moncloa eta zenbait erkidego autonomotan berrezarria, “ad hoc” Lege eta Epaile, eta esanera eta aztoratuta dauden hedabideen bidez askatasun formalen enborra kolpez kolpe ebakitzen du.

Eta, hain zuzen ere, Euskal Herria da XXI. men-



deko espainiar Estatuan (eta beharbada Europan) dagoen , askatasunaren (askatasun formalak barne) eta faxismoaren arteko guda zelaia. Euskaldunen Herriak, jeloskor eta bere askatasun indibidual eta kolektiboen statusaren aldeko borrokarako beti prest bere aurrean espainiar faxistek jarri duten gerla makinari bakarka aurre egiten dio.

Azken udal, estatu mailako eta europar hauteskundeetako datuak hartuz errepresio iraunkor estrategia honek ez duela berarekin ihesa ekarri baizik eta Euskal Herria independente batenganako herri atxikimenduak fidel eta tinko jarraitzen duela garbi geratu da.

Ezker abertzaleak soilik, hogeita bost urtetako iruzur konstituzional eta estatutarioaren etengabeko salaketaz Estatuaren eraso hazkundearen aurrean iraun du zutik. Eta horregatik da ezker abertzalea errepresioa gogorren pairatzen duena, euskaldunen Herriari bere etorkizuna aske eta demokratikoki erabakitzea ukatzen dionari arazoa muturrez aurre jarri diolako.

Bertako eusko burgesiari, eta ezker erreformistari, alderantziz, gobernuarekin bat eginez, garai konstituzional-estatutarioa amaitu dela eta espainiar integrazio grinen aurrean E. Herriak subjektu politiko burujabe bezala bere ahotsa altxatzen duela jakinik, itzulipurdi juridiko-politikoen bidez hamaikagarren aldiz akerrari adarrak zuzenduko dizkiolakoan (lbarretxe plana delakoa) ahoa tratatzen zaio: E.A.E. Espainian erosotasunez txertatzea. Beste alde batetik bai espainiar estatuko zein frantziar estatuko ezkerren ahulezi ageria bi estatuetaiko populazioaren kudeaketa eredu neoliberal eta errepresio faxistaren bereganatzea eragiten joan da.

Baina garaiak premia dakar, eta PNV-EA bere bigurutzeko historikoan aurkitzen da: gezurretan eta, betiro, hartu beharreko erabakia atzeratzen jarraitzen edo behingoz, espainiar aparatu errepresiboaren aurrean, arma eta ekipaiarekin amore eman, Ertzaintza estrategia errepresibo horren buruan jarriz.

Zipayismoa, beste behin ere, Herri baten askatasun gogoia mehatxatzen ari da.

NAZIONAL eta SOZIALaren artean planteatutako dualismo zaharrak gaur eta hemen bere benetako entitatea hartzen du.

IV. 1978KO KONSTITUZIO EREDUAREN KRISIA. PROPOSAMEN BERRIAK

1978ko espainiar Konstituzio ukiezinak, Euskal Herrian %33ko sostengua besterik lortu ez zuenak, bi zutabe nagusi ditu: espainiar aberri sakratuaren batasuna eta gizarte eredu kapitalista.

Ekonomi eredu hura agortu ondoren, eta ez kostu

sozial itzelik gabe -industri birmoldaketak, arrapaladazko langabezia, etxebizitza eskuraezinak, esku-biderik gabeko zabor-kontratuak, ustelkeria sindikala etab- eta, oro har, 1986an merkatarien Europarengana, gaur moneta batuaren europar Bata-suna izenez birbataiatua, sistemak egindako eransketa "burutsu"aren ondorioz, ipar aldeko gatazka amai ezina "ebaztea" falta zen eta, berarekin, penintsulako nazioen behin betiko muntaketa nahaste-borraste txepel baten barnean (loturik eta nahaspilatuta gainera) .

Suarez presidente ohiak, frankismoaren ondorenean Estatuako indar zentrifugoaren gorakadari aurre egiteko antidoto bezala, bultzatutako "guztionezako kafea", E. Herria, Katalunia edo Galizia bezala, berezko hizkuntza eta kulturarekin, Herri ezberdin moduan biziraun nahi duten nazioentzat ez da aski izan.

Nazionalista demokratiko burgesek erregimenak, onartutako Estatuak betetzetik urrun, transferitutako Botere eta kompetentziak- LOAPA, E. Konstituzional etab bidez- berreskuratzen zituela eta falta zirenak ez zituztela eskuratuko ikusi ostean, espainiar inposaketa inperialistari aurre egin nahian "Bartzelonako adierazpena" delakoan konjuratzen dira. Burgesia lokal bakoitzaren betiko berekoikeriaren-gatik arrakasta eskasa da.

Alderantziz, E. Herrian, euskaldunen Herriari Botere sortzailea emango dion aldaketa juridikopolitiko baten ikuspuntu orokorra gero eta nabaria-goa eta sentituagoa da. Helduen euskalduntze prozesua, euskal eskola publikoa bera eta adierazpen eta iritzi bide propioen erabilerak espainiar neofrankismo kulturalaren saiakera uniformatzaile eta kultura-gabetze erdipurdikotik oso urrun dagoen kultura eta inguruko errealitatearen harrera bat bultzatzen dute. (Horregatik bere "lingua navarrorum" propioaren edozein aztarna ezabatzeke UPN-CDN nafar gobernuaren eginahala).

Estatuak, Lizarra-Garazi Akordioaren izenpetzeen ondoren "ipar aldea galdu" duela ederki ulertzen du eta ez dagoeneko errotutako gatazka armatuaren-gatik, konponezina izaten jarraitzen duena, baizik eta euskal gizarteak espainiar proiektu inperialista ustelari bizkarra ematen diola eta euskal Nazioa gogoz eraiki nahi duela guztiz kezkatu ikusten duelako. Hori Estatu parademokratiko burges batek jasan dezakeena baino gehiago da eta (nahiz eta Estaturen kultura eta ekonomi desegite egoerak nahastutako eta jasaten duen desinformazio sistemakoak lerrokatutako espainiar Herri batek ematen dion gehiengo absolutu baten bidez egina), "talde terrorista"-z gain "ingurune terrorista" bera, hau da, Euskal Herri langilea bera, demonizatu eta epaitu du.

Hori da Espainian Trantsizio garaitik hona emandako jauzi kualitatiborik handiena. "Demokrazia



formala"-ren epe laburra bukatzen da eta piztia bere antzinako izaera errepresibo eta faxista berretartzen da. 1978an, Konstituzioarekin, eta 1979an, Gernikako Estatutuarekin, gauzatutako iruzurra (Nafarroan foru hobetzea ez zuten herri plebizararen baitan jarri ere egin) al zaizkie. Ezker Abertzaleak agerrarazi eta aurre egin dio. Euskal herri indarrek erregimenak, diktaduratik atera ostean, espainiar sozialdemokraziak (PSOE), euskal herritarak (EE) eta Euskal Herriaren baskismoz jantzitako eurokomunismo carrillistaren hondakinek (IU-EB) emandako laguntza galantarekin, abiatutako irenste proiektua borrokatu dutela esan liteke beraz.

Hain ezegonkorra den egoera politiko honen aurrean, espainiar eta euskal indar politikoak korapilo juridiko-politiko birformulatzerara doaz, honela:

- Euskal Bloke autonomista-burgesak (PNV-EA-EB) "Ibarretxe Plana" delakoa eskenaratzen du. Plan honek, hizkera sasi-burujabez apaindua, "parekoei arteko Paktu" formularen baitan errealitatean estatutismoaren berregokitze bat proposatzen du (neoestatutismoa). Konstituzioko lehen disposizio gehigarrian sagaratutako Eskubide historikoen amets jeltzale zaharra da. Hitz batetan, Espainian eroso bizi eta beren interes ekonomikoek ez dezatela arriskurik txikiena ere izan, Euskal Herriaren zatiketa alde batera utziz, eta hainbat erakunderen, komunikabideren eta abarren ilegalizazioa ekarri duen gatazka politikoari irtenbidea bilatzeko inolako lanik hartu gabe. Haiei (PNV,EA eta IU), ustez abertzale eta ezkerreko planteamenduekin, Gasteizko Gobernuaren proiektua lagundu edo eusten duten beste batzuk erantsi ahal zaizkie.
- Espainiar bloke konstituzional-faxistak (PP-PSOE) beste hainbeste proposatzen du: hauteskunde deialdiak direla eta bata eta bestearen arteko itxurazko distantziaren arabera transferentzia gehiago edo gutxiagorekin, errealitatean espainiar kirats nazionalista ustela darie: ez dago euskal herriak zati bereiz ezin bat osatzen duen espainiar Herriarena ez den beste burujabetasunik. Laburbilduz, "erregionalismo osasuntsu" neofrankista ospetsua – edo espainiar "demokraten" hizkeran autonomien Estatua-.
- Ezker abertzalearen blokeak (Batasuna-ANV etab eta, umiltasunez, EHKko komunistak, besteren artean), euskal Nazioa eta espainiar eta frantziar Estatuen arteko gatazka historikoa gainditzeko tresna bezala, euskaldunen Herriaren autodeterminazio eskubidea ahalbidetuko duen langileria eta herri klaseen, sektore burges aurrerakoiak barne, arteko aliantza baten alde egiten du.

Azken hauteskunde orokorretako emaitzen ondo-

ren, PSOEren garaipena eta honen desberdintzeko beharraz itxuran bakarrik bada ere, EAJ-PSOE paktua jartzen da mahai gainean EAEn, lehenengoari estatu mailan nolabaiteko egonkortasuna eta bigarrenari bere gestio eredu neoliberalaren betierekotzea bermatzen diona. PSOErekin ituna edota Ezker Abertzalearekin eta beste hainbat agente politiko eta sozialekin, ala nola sindikalekin, Herri Frontea osatzea, biak dira posibleak. Honek La-kuako gobernu osatzen duten hiru alderdien barnean zenbait aldaketa sortu ditu.

Hau, sinpleki, ideia politiko guztiak berdintasunez defendatu eta gauzatzea baliatuko duen joko eremu politiko bat ahalbidetzerara bideratutako posizio taktiko bat da.

Etorkizuneko etapa horretan, ezker abertzaleak eta, honen barnean, euskal komunistek, gure benetako asmo politikoa formulatu ahal izango dugu, hots: independentzia eta sozialismoa.

Baina egoera horretara iristeko lehenengo espainiar eta frantziar Estatuek eragotzitako, eta eusko nazionalismo burgesak etengabe oztopatutako (kolaborazionismoa), bide gogor bat ibili behar da.

V. AUTODETERMINAZIOA: APURKETA, IRAULKETA, IRAULTZA

Euskal gatazka "estatuarekiko" (lurralde, ekonomi eta politiko) apurketa planteatzerakoan, estatu batetako zein besteko eskuinari, 1948an Europa zeharkatzen zuen mamu hura oroit araztera etorri da. Autodeterminazioa bere kabuz, independentziaz, estatuaren aurka, aurrera egin nahi duen herri baten alde bakarreko apurketa da.

Autodeterminazioak ordena zaharrean errotutako instituzio zaharren interferentziak gainditzeko dituzten eta beren partidu propioen kupulak gaindituz herri masaren lehertzea suposatzen du. Autodeterminazioa IRAULKETA da.

Herria eta beren zuzendaritza kupula eta programa elektoralekiko identifikazio artifiziala beren izenean inork erabakirik ez hartzea erabakitzen duen masen komunikazio zuzenaren aurrean erortzen da. Bestela zein zentzu izango luke langileriarik gabeko eta esklabutzaren peko herrientzat ere Leninen autodeterminazioaren aldeko defentsak? (ikus 1912ko Lenin-Kievski eztabaida).

Ez da kasualitatea Marxek -Internazionalaren Kontseilua 1868an informatzean- Irlandaren independentzia prozesua ingeles iraultza piztuko zuen txinparta bezala hartzea iristea. Lehenago, 1846an, Poloniaren autodeterminazio eta independentzia aldarrikatu zuen.

Era berean autodeterminazioari buruzko Leninen tesiak ezagutu eta aldarrikatzen ditugu. Eta



oinordeko garen 1917ko Urriko Iraultza Sobietarrak boterea hartu ondorengo zortzigarren eguneko "Herrien eskubide aitortenak" frogatzen duen bezala (1917ko Azaroak 20) langile eta herrien askapen iraultza bat izan zela gogoratzen dugu. Eta Finlandiak, Poloniak, Bielorrusiak, baltikoko errepublikek eta kaukasiar errepublikek independentzia bereganatu zuten.

Euskal komunisten lehen erakundearen jatorria markatu zuen ideia autodeterminazioa izatea ere ez da halabeharra (1935eko PCEn Fundazio Akta).

Autodeterminazioak estatuaren marko legala apurtzeko "masa kritikoa" metatzea suposatzen du. APURKETA azpimarratzen dugu, estatuarenganako errespetuzko atxikiduraren sozialdemokrata tradizio zaharraren autonomia kulturalarekin (Kautsky eta Bauer) zer ikusirik ez daukana.

Autodeterminazioa Merkatuaren Europan, Pariseko jakobinismoaren, Madrilgo eta Inperioko faxismoaren artean; estatuekiko eta sistemarekiko apurketa da. Autodeterminazioa egun batetan bozkatzera murriztu edo herria dagoeneko hauteskundeetan autodeterminatu deneko baieztapen traketsa amarru abil bat dira. Autodeterminazioa ez da estatikoa, dinamikoa da.

Autodeterminazioak iraultza eta apurketa delako min ematen du. Euskal Herria sistemaren barruan autodeterminatu ahal izango al litzateke? Ez. Euskal Herria sistemaren kontra gaudenokin bakarrik autodeterminatu ahal izango al litzateke? Ez. Metatzen eta dialektikoak izaten (kontraesanek kontraesan) jakitea da sekretua. Aurrera egiten lagunduko duten bitarteko legalak -aho bikoak-, lorpen demokratiko zahar haiek eta legalitate hori, progresiboki deserosoa eta faxismoak harrapatua, aurrera egiteko bitarteko erabilgarri bat izan behar dira. Autodeterminazioaren bidea legala eta ez legala izango da, baketsua eta bortxazkoa izango da eta, bi estaturen artean eta kontzientzia ezberdin batekin, zatitutako hiru entitate politikok diferentziatutako herri baten abiapuntuaren erritmoan izango da eta beti ere fasez aldatzeko "beharrezko masa kritikoa" metatuz, baina beti oinarrizko ideiatik abiatuz: autodeterminazioa ez da men egitea.

Eta autodeterminazioa, independentzia beharrezko masa kritikoa askatuarekin puntualki independentziari aurre egitea -plebizitua- da azkenik. Lenin POSDR-aren 1913ko 3. Biltzarrean gogoratu zuenez *"nazioen autodeterminazioa estatu bezala kolektibitate nazional arrotzengandik bereiztea bezala ulertzen da, nazio estatu independentearen osaketa bezala ulertzen da"*.

Autodeterminazioa hau da: men ez egitea, iraultza, metatzea eta apurtzea. IRAULTZA da.

Euskal komunistok klase erakunde modura beste borroka fronte batzuk dauzkagu, baina EUSKAL FRONTE DEMOKKRATIKO baten osaketa lehen ataza bezala hartzen dugu. Lizarrak bidea erakutsi zigun lehen saiakera bat suposatu zuen. Bergarako Proposamenak noranzko horretan beste pausu bat suposatu du. EUSKAL HERRIKO NAZIO EZTABAIDAGUNE, SOKOAKO NAZIOARTEKO EZTABAIDAGUNE ekimenak...

Autodeterminazioa gaur, estatuaren aurrean, (herri eta antioligarkiko) BLOKE alternatiboa zementu ideologiko modura kohesionatuko duen programa minimoa da. Horrek klase posizio ezberdinekin Euskal Herriarentzat alternatiba ezberdinak dituzten erakunde sozial sindikalekiko eta politikoeikiko, euskal burgesia ez oligarkiko sektoreekiko, nahiz eta beren zuzendaritza kupulak (PNV, EA...) beren ideologiaren baitan ebatz ezin litezken kontraesanetan erori, aliantza suposatzen du. Eta guzti hori, "Euskal Herriaren erabaki askeari zor zaion begirune" izendapen komunarekin.

Autodeterminazioa herri batek bidaiaren bukaerara iristeko prest dagoen klase abangoardia daukanean burutzen du.

VI. DIALEKTIKA ETA IRAULTZA

Historikoki lehen euskal komunistek (Larrañaga esate baterako) planteatutako eta ENAMak eten gabe birformulatutako nazio askapen eta askapen sozial aldarrikapen bikoitza beharrezko formulazio dialektikoaren hutsuneagatik irteera murriztaile eta balizko dilema (nazio gatazka versus gizarte gatazka) alde bateko zein besteko uzte batek lagunduta etorri da. Euskal Herri Langilearen urte luzerako borrokaren ostean NAZIO ERAIKUNTZA = KLASA BORROKA formulazio bereizteza posible eta beharrezko egiten duen praktika bat existitzen da.

Errealitatean lotzen gaituen pragmatismoa, hala badena, eta errealtatearen ideian alegiazko kontsolazioa, hala ez dena, kontenplazio pasiboan identifikatzen dira. Dialektikak soilik hurbil gaitzake gizateriaren historiaren ikusmen sakon batetara. Aldaketa ororen kontraesan sortzaileen ikerketa batek soilik eman ditzake estrategia iraultzaile bat lantzeko elementu objektiboak.

Estrategia dialektiko falta batek, ezker historikoaren destakamendu handiak kontrairaultzan kokatzera eraman ditu: 1914ko sozialdemokratiziatik, "alderdi komunista" delako batzuetaraino, une historiko honen lerrokatze bilakaera "pragmatismo mekanikoarekin" jarraitzea hautatu dutenak. "Ezker historikoa" delakoa norabiderik gabe sigi-saga dabil, barne kontraesanaren preso kontraesan erradikalak ez onartzeagatik. Dialektika iraultzailearen "zementu ideologikoa" desagertu ondoren proiektu alternatibo osoa gainbehera



dator. Oportunismoa objektibotasun pragmatikoaren bahitua da.

Dialektika ez da teoria hutsa, bizitza bera da, eta bere aldaketan arrazoia. Intelektual burgesek ez dute "sen ona" pragmatikoarekin dialektika eskomulgatuzetik utzi, 1848an "Manifestuan" klase borroka historiaren motore gisa funtsezko legea formulatu zenetik.

Era berean "Kapitala" historiaren dialektikaren itun oso bat da (erabilera balioa eta aldaketa balioa, lan eta merkantzia, plusbalio eta metaketa...).

Dialektika iraultzaileak eraldaketaren subjektu modura alienatutako eta desjabetutako izakiaren - proletalgora- protagonismoa planteatzen du. "*Filosofoek historia interpretatu dute. Eraldatzea da kontua*" (Feurbach - Marxi buruzko XI Tesia).

Marxismo ez dialektiko bat nahi izan zutenak, pragmatismo burgesean geratu ziren, eta ondorioz iraultzaile eta marxista izatetik utzi dute; dagoeneko liberal batzuk dira eta Espainian estatuaren aparatu bihurtu dira.

Dialektikaren legea aurkariaren batasunetik azaltzen da (Leninek, Maok... garatua). Zapalduak daude, zapaltzaileak daudelako; menperatuak daude menperatzaileak daudelako, guda, kolonialismo, pobrezia eta bazterketa daude metaketa kapitalista dagoelako daude. Engelsek "mugimendua kontraesana da" azaltzen du. Eta geroago Leninek kontraesanaren unibertsaltasuna matematikan, fisikan... soziologian (klase borroka) adieraziko du.

Funtsezko kontraesana da, historiaren aldaketa azaltzen duena, gure gizarte kapitalistan produkzio prozesuan sortzen dena, iraultza industrialetik menperatze eredu sozialaren benetako birsortzailea, eta estatua ikur duen benetako gizarte sortzaile nukleoa, metaketa prozesuaren fasearekin bat etorritik.

Egungo mundializazio fasean eta Kapitalaren Europan, estatuak goitik konpetentziak uzten dituztenean, inperioaren boterea kontzentratzen duten super-estatu berrien menpekotasuna onartuz, sistemaren kontrako borroka "estatuaren" eta mundializazioaren kontrako borrokarekin identifikatzen da.

Euskal Herriko komunistentzat kontraesan nagusia edo premia-koena (ebazten lehena) Gure herria eta espainiar eta frantziar estatuak aurrez aurre jartzen dituen da. Ziur aski, Euskal Herrian izango da, estatuari eta sistemari aurre egiten dion Europa zaharreko masa sozial (kritiko) handiena kontzentratzen duena.

Leninek bere "Herrien askapen Manifestuaren" aurkezpenean 1917ko Urriak 25ean zera formulatu

zuenen: "Errusiak Herrientzako kartzela bat izateari utzi dio", nazio askapenaren klase edukia adierazten du.

Askapen totalaren bidean behar erradikaletatik jaiotzen diren kontraesanekin batera, hala nola bigarren mailako (progresiboki garrantzitsuak direnak) beste kontraesanekin bezala; askapen beharretik jaiotzen ez diren, baina errealtatearen ikuspen murriztaile batetan oinarrituta dauden, eta etsaiak oso ondo egiten duen, alegiazko kontraesan faltsuak planteatu litezke. "Errealtatearen filosofiara" murriztutako errealtatearen bertsio hegeliarra dira (herriaren opioa), Marxen dialektikak bere "errealtate materiala" itzultzeko kritikatu eta egokiro alderantzua. Goebels kriminal nazia izan zen III. Reicharen propaganda alegiazkotasunean oinarritu zuena, "mila aldiz errepikatutako gezur bat egia da" esaldiaz definituz.

Errealtatea bera "errealtatearen ikuspegiagatik" aldatu egiten da, beharrezkoa den errealtate berri askatzailerara heldu ez dadin. Euskal Herrian hau egiaztatu ahal izan da "bortizak" versus "demokratik" binomio manikeoaren bitartez. Estatuaren manipulazio mediatiko hau edozein mendekotasunetik kanpoko etika "gizagaixoaren" atmosferan garatuz joan zen. Izan daiteke behe-behekoen askapenetik eta bortizkeriaren sorburuen analititik hasten ez den etika alternatiborik? Ez. Ez da etika eta ezta da unibertsal, alienantea besterik ez dena. Kontradikzio birtuala (faltsua) da, gizarte behar erradikaletik jaiotzen ez dena baizik eta estatuaren estolda ideologi-koetatik.

Estatuaren burugogorkeria, erabilitako disuasio tresna kopuru eskergak frogatzen duen bezala, eta bortxakeriaren alegiazko kontraesanean ekitea gure borroka Euskal herriaren independentziaren aldeko borroka EMANen baitan bide egokia denaren adierazle dira.

Bortxakeria menperatzearekin (=bortxakeria) desagertuko da estatuak, armadak... eta klaseak (ez da posible klase borrokan tregoarik) desagertzean; gizateriaren egiazko historia hasten denean.

Marxismo iraultzaileak historiaren motore bezala klase borrokan oinarritzeaz gain, sistemaren nukleoa suntsitzeko langileriaren zuzendaritza paperarekin, egoera zehatz bakoitzaren aldaketaren gakoarekin asmatzeko analisi metodo bat suposatzen du. Analisia da, bide da eta xedea da.

VII. ILDO POLITIKOA

Xede komunistaren jomuga gorena klaserik gabeko gizartea lortzea da, komunismoa, mundu osoan zehar; non emakume eta gizonak benetan askeak izango diren. EHK jomuga hau bere egiten



du eta, Internazionalismo Proletarioaren printzipioei jarraituz, eta halako helburua lortzearen, bere ekarpenik handiena Euskal Herriaren askapen nazional eta sozialaren alde borroka egitea dela arrikatzen du.

EHKren ekintza politikorako ildoak honako ataletan laburbildu daitezke:

1.- Autodeterminazioa eta lurraldetasuna:

Autodeterminazioa klase gatazkaren funtsezko kontua da Euskal Herrian. Euskal komunistok eskubide honen aldeko borrokaren buruan jardun beharra dugu. Lehenengo eta behin, gatazka politikoa parametro demokratikoetan konpontzeko giltza dela uste dugulako, bigarrenik, espainiar eta frantses oligarkiak ahultzeko balio duelako gaur, estatu bietan posizio iraultzaileen aurrerapenerako laguntza dena, eta hirugarrenik, autodeterminazioaren aldeko borrokaren buruan jartzean, ELHan nazionalismo burgesaren influentzia desagertuz joatea lortuko dugulako.

Gainera, 7 euskal herrialdeen birbateratzearen alde borrokatu beharra dugu, subjektu nazionala Euskal Herria osoa dela jakinik. Lurralde aniztasunaz asko hitz egiten da; guk ez dugu hori ukatzen, baina lurralde bakoitzarentzat eritmo edota jardunbide ezberdinak aurkeztea balizko aniztasun batean oinarriturik, espainolismoari eta jakobinismoari bidea erraztea dela uste dugu, gure aberriaren eskubide nazionalak sistematikoki ukatzeko argudio bera erabiltzen baitute.

2.- Aliantza politika:

Gaur egunean EHK-k Herri Batasunaren (Batasuna) barnean kokatzen du bere burua eta, beste zenbait erakunde abertzale eta progresistekin batera, Ezker Abertzalearen parte da bereziki eta ENAMrena orokorrean. Komunisten papera bizia-gotzea beharrezkoa ikusten dugu Herri Batasunaren barnean proiektua bera indartzeko, EHLk duen tresnarik onena baita orain, Euskal Herrian demokrazia eskuratzea lehentasuna denean.

Bestalde, ENAMren aurkako erasoaldi faxistak inplikaturako sektore guztiak trebetasun politikoz jokatzea behartzen ditu. Sentsu honetan Nazio Fronte Demokratiko handi bat osatzeko premiazko aurrerapausoak ematea beharrezkoa dela uste dugu. Langile klasea bereziki eta klase herrikiok orokorrean (EHL bere osotasunean), hala nola burgesia nazionalista txiki eta ertaina fronte horren garapenean interesaturik daude objektiboki; baina aliantza hau era dialektikoan eta ez metafisikoan ulertu beharra daukagu. Honek burgesia txiki eta ertainak fronte hura beren klase interes eskusiboe-tarako erabiltzen saiatuko direla esan nahi du; era berean EHLren osotasuna saiatu eta lortu behar da, aurrerakuntza eta atzerakada uneak izango

direla jakinik, baina berari dagokiola prozesuaren zuzendaritza, bera baita nazio gatazkaren konponbidea lortzen interesatuena; elementu burgesak, beren klase izaera dela eta, ezker-eskuinka mugituz joango direlarik abagune politikoak eskatzen dien heinean.

3.- Lan arloa:

Lan arloan, EHK, LAB klase eta nazio sindikatuan aritzearen alde da. Honekin batera, komunisten betebeharra da sindikatu honen hegal iraultzailea indartzea eta edozein tentazio burokratizatzaile salatzea honen barnean.

Ugazaben aurkako borroka zuzenean, soldata eta lan baldintza hobetuz eskuratzeko borrokan, langileen erabateko batasuna behar-beharrezkoa da, sentimendu nazionalisten edota ezberdintasun ideologikoen ginetik; horregatik, lan sindikalean, langile batasunaren alde jardun behar dugu.

EHK-k, gaur egun lan munduari eragiten dioten bi gaitz nagusien salaketari ekin behar dio: prekaritate, kapitalistak euren poltsikoak betetzeko balio duena, langileak beharren arabera eta merkantzia hutsa baliran erabiliz. Prekaritate, gero eta gehiago jasan beharreko aldirikotasunarekin batera, langileen egonkortasuna ezindu eta etorkizunerako ikuspegia baztertu egiten du. Baita ere terrorismo patronalak, laneko segurtasun eta higiene neurrien urritasuna, erabat falta ez direnean, lanaldi luzeetara (aparteko orduak etab.) itzulera eta azpikontratazioa direla medio etorritako lan hilkortasun tasa altuen atzean ezkutatzen den, batez ere "lan *is-tripu*" izen eufemistikoaren bitartez ("*mobbing*" etab. ez aipatzearen), kapitalisten erantzukizuna estali gura du.

4.- Presoak:

EHK-k preso politiko ororen amnistiaren alde borroka egiten du, indultu edo barkamenarekin nahastu behar ez dena. Herriaren gehiengo zabal batek antsiatzen duen helburu hau lortzen ez den bitartean, preso politikoak (baita sozialak ere) Euskal Herriko kartzelatara berehala aberrira ditzatela exijitzen dugu. Halaber euren zigorraren hiru laurdenak bete dituztenen edota gaixo dauden presoen berehalako askapena exijitzen dugu.

Gainera, EHK-k emakumearen edo haurtzaroaren aurkako edota odol deliturik ez duten gizarte preso-askapenaren aldeko deia egiten du.

5.- Euskara:

EHK-k Euskal Herriaren hizkuntza nazionalaren, euskararen, normalizazio osoaren alde borroka egiten dugu. Hau izan behar delarik hizkuntza ofiziala gure ustez, gaztelania eta frantsesa hizkuntza



koofizialak izatera pasatuz, Euskal Herriaren bereuskalduntze globala ematen ez den artean.

6.- Hezkuntza:

Esplotazio kapitalista mantentzeko burgesiak daukan tresnen artean, hezkuntza garrantzitsuenetako bat da nagusiki bere bidez burgesiak etorkizuneko langile masak ideologikoki modelatzen dituelako. EHKtik gizon eta emakumeak balore aurrerakoietan prestatuko dituen eta hezkuntza teoriko eta praktikoaren artean oreka mantenduko duen herriaren zerbitzurako nazio, publiko eta euskaldun hezkuntza eredu baten alde borrokatzen dugu. Honen konprezioa Euskal Herriko Herri Eskola eta Euskal Herri Unibertsitatea dira.

Nazio ereduak den heinean egun existitzen diren beste ereduak desagertuz ikasketak burutzeko hizkuntza Euskara (gaur "D" izenekoak) izan behar dela ulertzen dugu; hala ere, gaztelera eta frantsesa derrigorrezko ikasgai izango dira.

Arlo honetako jardura ildo politikoei buruz, EHK-k aro honetan honako honetarako lan egin behar du:

7.- Emakumea:

EHK-k gizon eta emakumeen arteko berdintasun osoaren alde borrokatzen du. Emakumearen askapena klase borrokaren oinarritzko arazoa da eta ezin daiteke herri langilearen emantzipazio orokorretik kanpo konpondu. Generoen benetako berdintasunaren aldeko borrokan soldata berdinketa eta lanpostu bat eskuratzeko garaian aukera berdinketaren aldeko borroka lehentasunekoak dira.

Ez dago Euskal Herri egiazki askerik emakume askerik gabe. Esparru honetan langile askok bereganatu dituen aurreiritzi burges matxisten kontrako borroka beharrezkoa da baita ere. Beraz, sozialismoaren aldeko borroka patriarkagoaren kontra eta bere ondorioz miserabletako baten kontra borrokatzea exijitzen du: patriarkagoaren terrorismoa ("genero bortizkeria" delakoa). Hemen ohar bat egitea beharrezkoa da: ez gizon isolatuen erokeria indibiduala bera beren bikoteak kolpatu eta hiltzera daramatzana, baizik eta sistema kapitalista bera da egoera hauek emateko baldintzak sortzen dituena; beraz gizarte arazo bat da. Horregatik beren benetako etsaia, burgesia, identifika dezaten langileen artean ideologi borroka zabal bat burutzearen alde egiten dugu eta honela patriarkagoaren aurkako borroka patriarkagoaren terrorismoaren kausekin amaitzeko bidea da.

8.- Gazteria:

Kapitalismoak igarotzen duen krisi orokorrak era berezian gazteria kolpatzen du: lana lortzeko zailtasunak, lortzen dutenean lan prekarietatea, etxebizitzaren debekuzko prezioak, errepresioa... hau da

euskal gazteriak topatzen duen panorama.

Arazo guzti hauek ez diete soilik klase borrokaren errealitateari ihes egiten, baizik eta bere funtsezko zati dira: kapitalismoa gizateriaren eta bereziki gazteriatik irekitzen dena da.

Euskal Herrian bere arazoak zein diren dakien gazte mugimendu zabal, dinamiko eta borrokalaria (eta baita jazarria ere) dago, baina hala ere ahal den esparru gehienetan gazteen iraultza antolaketa indartzen jarraitu behar dugu.

Arazo larrietako bat etxebizitzarena da, horregatik, EHKrentzako lehentasunekoak da gai honen gainean eragitea, espekulazioaren aurka borroka eginez eta prezio eskurakordun etxebizitzak sor daitezkeen, gazteek bizitza proiektu burujabea izan ahal izateko. Hau estuki loturik dago lan merkatua deiturikoaren baldintzetara, beraz "lan arloa" atalean esandakoa honetan ere balio handia dauka.

9.- Ekologia:

Produktzio era kapitalista planeta suntsitzen ari da gizateria desagertzeko zorian jarriz. Arlo ekologikoan gizakiaren zerbitzura eta naturarekin harmonian egongo diren produktzio indarren garapen baten alde egiten dugu.

Gizakiak ez dio natura izateari uzten, kontzientziarekin hori bai, baina natura azken batean; honela naturaren baldintzekin bat ez datorren garapen bat azken finean gizakia beraren kontrako eraso bat da. Ez dago soberan Engels-ek 1876an esaten zuena gogoratzea: *"Hala ere, ez gaitzezen naturaren gaineko gure garaipenekin itsutu. Garaipen hauek bakoitzaren ostean, naturak bere mendekua hartzen du (...) Horrela, pausu bakoitzeko, gertakariak naturaren gaineko gure domeinuak menperatzaile batek herri menperatuarengan daukan domeinuaren antza izpirik ere ez duela gogorarazten digute, ez dela naturatik at dagoenen baten domeinua, baizik eta gu, gure haragia, gure odola eta gure garuna, naturaren parte garela, bere baitan gaudela, eta bereganako gure domeinu osoa, gaitzetzeko beste izaki guztienaz bestela, bere legeak ezagutu eta egokiro aplikatzeko gai izatean datzala"* (F. Engels, "Tximua gizaki bihurtzerakoan lanaren papera", 1876).

10.- Internazionalismoa:

Proletalgo internazionalismoaren izpirituari fidel izanda, EHK-k munduko langileen batasunik osoaren alde egiten du. Piztia inperialistak herri guztiei bere lasdura azaltzen dien une honetan, bakearen alde borrokatzeko erakunde aurrerakoi eta iraultzaileek, inperialismoaren hedapen planei aurre egiten dieten Estatuak bezala, Munduko Fronte Antinperialista handi bat sortzea lehentasunekoak kontsideratzen dugu.



EHK-k mundu osoan gauzatzen diren nazio askapen bidezko borrokak eta borroka iraultzaileak sostengatzen ditu. Era berean existitzen diren Estatu sozialista guztiei gure adiskidetasuna adierazten diegu eta inperialismoarengandik jasotako mehatxuen aurrean gure elkartasuna adierazten diegu.

Azkenik, espainiar eta frantziar Estatuetakoinista, aurrerakoi eta antifaxistei borroka bideak lortzeko dei egiten diegu guztiok Estatu berdinek zapalduta gaudelako, euskal nazioaren eta bere nazio askapen borroka zilegiaren onarpenaren oinarriaren gainean.

11.- Borroka bideak:

EHK, langileen botere hartzea helburu duen erakunde iraultzailea den heinean, bere helburuak lortzeko ez du inolako borroka bideri uko egiten. Leninek ongi erakusten digun legez: *“...marxismoak ez du inolako borroka bide erabat gaitzesten. Marxismoa ez da, inondik inora, une zehatz batean posible eta ematen diren borroka bideetara mugatzen, abagune soziala aldatzean, une jakin batetako militanteentzat ezezagunak diren borroka bide berrien halabeharrezko agerpena onartzen duelarik”,* geroago esaten duen bezala *“Borroka jardunbide jakin bati buruz bai edo ez erantzun nahi izatea, mugimendu jakin baten egoera konkretua zehatz-mehatz aztertu gabe, bere bilakaeraren fase konkretua aztertu gabe, marxismoaren posizioa erabat alde batera uztea adierazten du.”* (V.I. Lenin “Gerrilla gerra”).



ERAKUNDE AGIRIA

ANTOLAKUNTZA KONTUAK

Euskal iraultza bultzatzeko, bere etapa desberdinetan zehar, erakunde iraultzaile bat behar da. Aipatutako erakunde hau, teoria marxista-leninista oinarritua izan behar da, honekin bat datorren lan eredu bat bereganatu. Klase eta nazio mailako erakunde bat izango da. Antolakuntza hau aintzat hartu gabe, euskal langileak ezingo du nazio erakuntza eta gizarte bilakaera prozesuan dagokion paper historikoa bete. EHK abian jartzera doan aldaketa, ideologiko, politiko eta antolaketa mailatan, kolektibo bat izateari utzi eta erakunde batean bilakatzeko.

Ez da militante ekintzailerik - militante intelektualik, ez eta gidatzaile eta gidaturik. Erakundea maila guztietako bere kolektiboak bezala izan behar da analizatu eta eraldatzen duen "INTELEKTUAL KOLEKTIBO", eta ardura pertsonalek lan banaketan diferentziarik suposatzen ez dutena, ondorioz denbora muga eta arduren etengabeko errotazioa suposatzen duelarik. Komenigarria izango da errepresentazio lanak (ekintzak, mintzaldiak, kanpo koordinaketa, etab.) bakar-lanak ez izatea.

1.- Erakunde motari buruz

EHK ez da bere egituraren baitan masa handi bat berehalakoan biltzeko asmoz jaio, erakunde motel, trakets eta fosildu batetan bihurtuko litzatekeelako, bakarrik hauteskunde jarduerarako gai izango litzatekeena. Generikoki, "koadro"-erakunde bat da. Horregatik, nagusiki, hauteskunde eta instituzio jardueratara bideratutako ezker erreformista alderdietatik erabat desberdindu behar da. Ez da bere kideek karnet bat eduki, kuota bat ordaindu eta erakundearen prentsa irakurtzera soilik mugatutako "afiliatuz" osatutako erakunde bat. Erakunde marxista-leninista batetan, militante bakoitzak zenbait ataza beregain esleitua izango du eta masetarantz zuzendutako gidari batetan bihurtu beharko da. Soilik horrela gauzatu ahalko da, benetan, abangoardia erakunde baten papera, autoaldarrikapenaren bidez besterik gabe, lortuko ez dena.

Erakundea -bere estrategia gauzatuko duena eta bere lan politikoa independentzia osoz burutzen duena, arlo guztietan eta baldintzek baimentzen eta zehazten duten bitarteko guztiekin- ENAMen integrazten da, Euskal Herriaren nazio eta sozial askapenaren aldeko borroka berbera izanez. EHKren zuzendaritza eta gainontzeko ENAMren arteko harremana instituzionalizatutakoa beharko da izan, akordio komun, noranzko-biko eta iraunkorrez, zein garden eta autokritikari eta kritika leial bati atxikia. EHK-ko militanteek ENAMaren baitara metodologia eta estrategia analisiak naturaltasun osoz eraman beharko dituzte, umiltasunez lan pedagogiko bat

burutuz, baina, gainera, orokorrean ENAMko ekarpen bai teoriko zein praktikoeekin aberastuz.

2.- Antolaketa egitura

Erakunde komunista batek, erabat eragilea izan beharra dauka eta, horretarako, ezaugarri egokiak eduki beharko ditu. Bere egitura mailgua izango da (arina, bizkorra eta dinamikoa), borroka iraultzailea bideratuko den baldintza ezberdinetara egokitzea ahalbidetuko diolarik zailtasun handirik gabe.

Lan banaketa ez da sistematikoki existitu behar. Ardura zehatz eta pertsonalatuak existitzen dira. Zuzendaritza kolektiboa existitzen da. Militante orok hurrenez hurreneko ardurak bereganatzen joan beharko da eta egokitze garai bat suposatuko duten jardueretan parte hartzen joango da. Honek, sistematikoki jarduerak (koordinazioa edota zuzendaritza, hitzaldietako dinamizazioa edota ordezkari-tza...) konpartitzea suposatzen du. Esperientziak zehaztuko dizkigu bakoitzaren erresponsabilitateen iraupen aldiak.

Taldeak, oinarritzko egitura edo eraketa motak dira. Hauetan erakundeko militante kopuru handiena kokatuko da. Batzordeak, maila ezberdinetan, zuzendaritza organismoak dira.

Biltzar Nazionala erakundearen zuzendaritza organo nagusia izango da. Nazio Batzordea, bi Bitzarren artean erakundea bere osotasunean zuzentzeaz arduratuko da. Bere baitan, erakundearen zuzendaritza praktikoaz eta egunerokoaz arduratuko den Batzorde Eragile bat hautatuko da. Nazio Batzordeko kideen hautaketan, beren lurralde jatorriari dagokionez, nolabaiteko oreka bat mantendu beharko da, herrialderen bat gehiegi eta besteren bat gutxiegi ordezkaturik egotea ekiditeko. Gainera, antolaketa egiturak herrialde batzordeak eduki ditzake; baita sektore mailakoak ere. Taldeek beren Talde Batzorde propioa edukiko dute.

Erakunde edo alderdi komunista batetan, batzorde sistema zuzendaritza kolektiboa bermatzeko eta pertsonalismoak ekiditeko biderik eraginkorra da. Batzordeetako kideek, maila ezberdinetan, erantzukizun handia daukate, bere funtzionamendu egokiaren esku dagoelako, hein handi batean, erakundearen norabide orokorra eta bere ildo politikoa betetzea.

Batzordeek lan eredu komunista bat garatu behar dute, zuzendaritza kolektibo eta ardura individual hastapenean oinarritua, eta zenbait ezaugarri karakterizatu lezaketen: kide guztien arteko batasun estu bat mantentzea, gai garrantzitsu guztiak eztabaidaren menpe jartzea, iritzi guztiak askatasunez adieraztea, kide bakoitzak ezagutu duen gaietara buruzko informazioa trukitzea, beheko mailerik kontsulta egin eta beren iritziak entzun, erabakiak hartu eta aplikatzeko metodo eta bideak ezartzea,



garatutako atazen jarraipena egitea eta burututako akatsak zuzentzeko hauen kausak ikertzea.

Zuzenean Nazio Batzordearen menpe, espezializatutako zenbait batzorde sortuko da, arlo zehatz batzuetaz arduratuko direnak, bere jardueran zehar erakundeari planteatzen zaizkion arazo praktikoak konpontzeaz arduratuz. Adibidez:

Antolaketa eta baliabide batzordeak, militantziaren gaitasun eta potentzialtasun ezberdinak ustiatzeaz arduratuko litzakeena (ezagutza, esperientzia, gaitasun, etab), koadro, sektore eta abarreko hitzaldiak antolatzeaz, militante berrien erakarpenera planifikatu eta bultzatzeaz, erakundearen maila ezberdinen artean, barne informazio fluxua (goranzko eta beheranzkoa) bermatu eta bideratzeaz; bere erdigunean erakundearen egitura erregularra aurkituko litzatekeen zirkulu zentrokide eskema baten arabera, jarraitzaile sektore ezberdinekiko harremana koordinatzeaz; bere funtzionamendurako beharrezkoak diren baliabide ekonomikoen eskurapena koordinatzearekin batera.

Propaganda batzordeak, erakundeko argitalpen ezberdinak (aldizkari teorikoa, egunkaria, liburuxkak, liburuak, web orrialdea, etab) burutzeaz eta matxinada [agitación] kanpainak antolatzeaz arduratuko litzatekeena.

Prestakuntza batzordea solasaldi eta hitzaldiak prestatzeaz, eta militante eta koadroen prestakuntza ikastaroak baita ere.

Euskara Batzordea euskararen erabilera erakundearen baitan bultzatzeaz arduratu beharko da. Horretarako bere erabilerean jarraipen iraunkor bat egingo du eta EHK-ko militante guztiak alfabetizatzeke eta euskalduntzeko prestaketa ekintzak bultzatuko ditu.

Langile mugimendu batzordea, beste erakunde oraindik LAB-en militatzeko jauzi kualitatiboa eman ez duten beste erakunde sindikaletatik datozen haienaz gain, LAB sindikatuaren baitako lana planifikatu eta zuzentzeaz arduratuko da, hala dagozkion aktibo sindikalen bidez militanteen lana koordinatuz; zentral ezberdinetako zuzendaritzekin harreman ofizialak mantentzearekin batera.

Geure indarren arabera, eta LAB barneko gure militantziaren eskutik, EHK-ko Enpresa Taldeen sorrera sustatuko da.

Harreman Batzordea Euskal Nazio Askapen Mugimenduko gainontzeko eragile politikoekin harreman iraunkor eta erraz bat mantentzeaz arduratuko da. Nazioarteko Batzordea Espainiar eta Frantziar Estatuetakoko, zein munduko, gainontzeko erakunde iraultzaileekin harremanak mantentzeaz arduratuko da.

Emakume Batzordeak bai erakundearen baitan bai erakundetik kanpo eskubide berdintasunaren alde lan egiten du.

Gazte mugimendu batzordea, gazteen (ikasle edo/eta langile) artean lan politikoa antolatu eta koordinatzeaz arduratuko litzateke.

Erakundearengandik gertuen dauden jarraitzaile sektoreei buruz, Taldearen jardueran aurremilitante modura txertatu daitezke, beti ere Taldearen batzordearen zuzendaritzapean. Nolabaiteko ardurua maila bat eskatu ahal izango zaie (erakundearen politika defendatu, masa erakunderen baitan parte hartu, kuota motaren bat ordaindu, etab) nahiz eta ez dituzten militanteen eskubide eta betebeharrak izango. Erakundearen ibilbide orokorra jakinaraziko zaie, proiektu, kanpaina, etab, erakundearen segurtasunak gomendatuko dituen mugen barne. Arrazoizko epe baten ostean aurremilitante hauek erakundearen parte izatera igaro ahal izango dira estatutuek horretarako ezartzen duten araudia jarraituz.

Jarraitzaileekin ikasketa taldeak osatuko dira baita ere, baina kasu honetan eskatzen zaion inplikazio maia txikiagoa izango da, eta prentsa eta erakundeko bestelako argitalpenak irakurtzera mugatuko dira, une bakoitzean egoki iruditutako prestakuntza politiko eta ideologikoko, marxista-leninista, materialarekin batera.

3.- Funtzionamendua

Erakunde komunista batek, borondate eta ekintza, bloke solido eta monolitiko baten modura funtzionatu behar du. Batutako erakunderik gabe, euskal langileria batasuna lortzea zaila izango da, eta zailagoa oraindik helburu iraultzaile estrategikoak eskuratzea. Horretarako, arrastan eraman ohi den bizio eta oker ugari gainditu beharko da. Jarrera sektario eta zatitzaileak, matxista eta homofoboak, izpiritu lokalistak, liberalismoa, axolagabekeria, diziplina falta, etab gainditzea beharrezkoa da.

Erakunde bere baitan, hala nola beren sektore eta maila ezberdinetan, "BANAKAKO KOLEKTIBOAN" eratu egiten da.

Erakunde komunista baten funtsezko printzipioa, zentralismo demokratikoa da. Bi alde kontrajarri, kontraesankor, dira, baina unitate dialektiko bat osatzen dutenak. Baldintza politiko zehatz batzuetan, bata edo bestea indartzeko joera dago. Horregatik, beraien arteko oreka zail hori mantentzea beharrezkoa da, bitako bat ere ezin delako alde batetara utzi. Demokrazia zentralismoarekin bat doa, eta askatasuna diziplinarekin bat. Demokrazia eta zentralismo, askatasun eta diziplina arteko batasun hau da zentralismo demokratikoa osatzen duena. Barne demokraziarik gabe, erakunde komunista bat naturaltasunik gabe geratuko litzateke,



autoritarismoa eta "denak esnera" nagusi izango lirateke, eta sekta batean bihurtuko litzateke. Dizi-plinarik gabe, eztabaidarako klub soil batetan bihurtuko edo zatitu egingo litzateke.

zein kolektiboki, sustatuz lortuko da.

Erakundearen baitan, demokrazia eztabaidarako askatasun osoarekin irudikatzen da, bai zelulen edo batzordeen bileretan, bai erakundearen Biltzarretan; Estatutuetan ezarritakoarekin bat, zuzendaritza karguen hautagarritasunean bezala.

Bere aldetik, diziplina bost alorretan irudikatzen da:

- 1) militantearen erakundearekiko menpekotasuna;
- 2) gutxiengoaren gehiengoarekiko menpekotasuna;
- 3) behe mailen goiko mailekiko menpekotasuna;
- 4) erakunde osoaren Nazio Batzordearekiko menpekotasuna; eta
- 5) Nazio Batzordearen Biltzar Nazionalarekiko menpekotasuna.

4.- Kritika eta autokritika

Erakunde komunista batetan, ideia ezberdinen arteko, pentsaera desberdinen arteko, lehia eta borroka etengabe sortzen da. Erakundean kontraesan sozialak, klaseen artekoak, baita gizartean berria eta zaharra denaren artekoa ere, islatzen diren modua da. Kontraesanik ez balitz sortuko eta egokiro konpontzeko borroka ideologikorik ez balitz sortuko, erakundearen bizitza galdu egingo litzateke.

Erakunde komunista baten baitan kontraesanak ebazteko metodoa, kritika eta autokritika da. Borroka ideologikoaren azalratze bat da, beharrezkoa, eta barne demokraziaren baldintzetan aurrera eraman behar da. Inoiz ez da kritikarik eragotzi behar, ez eta autokritikarik ekidin ere. Bere funtzionamendu egokia autoritarismoaren kontrako babes bat da. Bestalde, aurrez aurre dauden posturak adosten saiatuz, borroka ideologikoa ekidin nahi dutenek, liberalismoaren errorea burutzen dute, erakundearen barne bizitza endekatzera bakarrik daramalako. Kritika eta autokritikak, gauzatutako erroreetatik, berriz burutzea ekiditeko, esperientziak eskuratzea ahalbidetzen du.

Kritika eta autokritika aitzin eramaterako garaian, erakundearen baitan, bere funtsezko helburua politiko eta antolaketa motako erroreak, gainditu ahal izateko, azalratzea dela aintzat hartu behar da. Horregatik, mamian zentratzea premiazkoa da, azala alde batetara utziz. Kritikak gertakarietan oinarritu behar dira, eta uste edo aieruetan, eta jarrera ireki eta objektibo bat mantendu behar da, subjektibismo eta aurre iritzietan kausitzea ekidinez.

Militanteen gaitasun eta izpiritu kritikoa garatzeko, ideia propioak izan ahal ditzaten, eta beren iritzi eta kritikak aditzera emateko beldurrik izan ez dezaten, prestakuntza teoriko-politiko eta ideologiko on bat izatea funtsezkoa da. Hori ikasketa, indibidualki

**ESTATUTUAK****I. DEFINIZIO OROKORRA ETA ESPARRUA**

1. Artikulua: Euskal Herriko Komunistak Euskal Herriko herri langilearen erakunde iraultzailea da, askapen unibertsalaren bidean, Komunismoa, euskal estatu independente eta sozialista baten erakuntzaren alde borrokatzen duena.

2. Artikulua: EHK-k bere jarduera marxismo-leninismoan oinarritzen du, Marx, Engels eta Leninek landutako teoria eta praktika, eta borroka eta askapen esperientzia ugarik, eta sarritan kontraesankorrak, eta konta ezin ahala ekarpen teorikok historian zehar aberastutakoa.

3. Artikulua: Bere nazio eta politiko jatorrian oinarrituz, eta erakunde baten baitako joera guztietako komunisten diferentziak ebazteko borondatearen onespenez, EHK Euskal Komunismoaren Konbergentzia Zentro bezala definitzen da.

4. Artikulua: Proletalgo internazionalismoan oinarrituz, EHK-k nazioarteko fronte antinperialista handi baten sorrera bultzatzeko asmoa dauka, Munduko Iraultza Sozialista eta Komunismorantz bidea erraztuko duena.

5. Artikulua: EHK Euskal Herriko nazio askapen mugimenduaren partaidea da eta independentzia eta gure herriaren autodeterminazio eskubidearen alde borroka egiten du, estatu bakar batetan Euskal Herria osatzen duten lurralde guztien batasuna aldarrikatuz (Nafarroa, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi eta Zuberoa). Euskal nazio askapen mugimenduaren originaltasuna eta historia eta lehengo Euskal Komunisten 'izpiritua' gure gain hartzen ditugu EHKren eguneroko praktika gidatzen duten elementu aberasgarriak bezala.

6. Artikulua: EHK-k Euskal Herrian independentzia eta sozialismoaren alde borrokatzen duen nazio askapen mugimenduaren batasuna bere helburuak lortzeko ezinbestekoa dela uste du. Horregatik ENAMko parte diren eragile politikoekin etengabe koordinatuko da eta ezadostasunak azaltzekotan bere baitan ebatziko ditu.

7. Artikulua: EHKren jarduera gunea Euskal Herri osoa da.

II. MILITANTEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

8. Artikulua: EHK-ko kide bere programa eta bere estatutuak onartzen dituzten, oinarri erakundetan parte hartzen duten eta erakundeak ezarritako onarpen prozesua gainditzen duten pertsonak izan daitezke.

9. Artikulua: Militanteen betebeharrak dira:

- a) Bere jarduera gunean erakundearen politika eta akordioak aplikatu.
- b) Erakundearen diziplina behatu eta bete dadin lan egin.
- c) Marxismo-leninismoaren printzipio teorikoak ikasi.
- d) Erregulariki kide den Talde edo/eta organoen bilera eta ekintzetan parte hartu.
- e) Erakundea ekonomikoki sostengatu.
- f) Euskalduntzea bideratu, norbere euskalduntzea hala nola euskal gizartearena, euskararen erabilpena une eta abagune guztietan bultzatuz.

10. Artikulua: Militanteen eskubideak dira:

- a) EHKren organoetan hautatu edo hautatua izan.
- b) Organoetako eztabaidetan modu kritikoz parte hartu.
- c) Puntualki organoen erabakiei zein erakundearen osotasunaren jarduera politikoari buruz informatua izan.
- d) Prestakuntza teoriko eta praktikoa jaso.
- e) Euskara erabiltzea inongo eragozpenik edota mugaketarik gabe.
- f) Bere jokaerari, bai goraipatzea zein kritika merezi dutenean, buruz erabakiak hartuko diren prozesuetan pertsonalki parte hartu.
- g) Beste burkideen errespetua izateko eskubidea eta berau exijitzekoa. Ez da onartuko mesprezurik, ez pertsonalak ez eta edozein korrante komunistari atxikita egoteagatikoak.

11. Artikulua: Gutxienez EHK-ko bi militanteren bermea jaso ostean EHKn sarrera era indibidualan gauzatzen da. Sarrera eskaerak Batzorde Eragileak ebatziko ditu.

12. Artikulua: EHK-ko organoek EHKren ildo politikoa edo estatutuak larriki hausten dituzten militanteak zigortu ahal izango dituzte.

Zigorra ekintzaren larritasunaren arabera zehaztuko da:

- Idatzizko oharra.
- Kargutik kanporatzea.



- Erakundetik aldi baterako bereizketa.
- Erakundetik kanpo bidaltzea.

Zigorraren erabakia dagokion organo edo Taldeak arrazoizko moduan hartuko du. Kanporatze kasuan aldeko botoen 2/3 beharrezkoa izango da. Kasu guztietan zigortuei dagokion organoaren aurrean bere defentsarako bideak bermatuko zaizkie gora-goko organo baten aurrean hartutako zigorra errekurritzeko aukera bezala (jakinarazia izan ondoren 10 egun abila). Errekurtso kasuan hilabete batetako epean ezarritako zigorra berretsi, atzera botu edo leundu beharko duen herrialde bakoitzeko militante batek (zozketa bidez aukeratua, ezingo da zigorra ezarri duen organoko kide izan) osatutako berme batzorde bat osatuko da.

13. Artikulua: EHKren Definizio Orokorren aurka doazen egintzak bereziki larritzat hartuko dira eta hala moduz zigortuko dira. (Irakurri "Zer gara gu?" dokumentua eta Biltzar Nazionalaren indarreko azken dokumentua)

III. BARNE FUNTZIONAMENDUA

14. Artikulua: EHK-k bere barne funtzionamendua Zentralismo Demokratikoaren printzipioetan oinarritzen du:

- Erabakiak eztabaida kolektiboaren fruitua dira.
- Gutxiengoak gehiengoaren menpe jartzen dira.
- Gutxiengoek erakundearen baitan bere adierazpen askatasuna bermatuta daukate.
- Behin hatuak izan ondoren, militantziak erabakiak aplikatu behar ditu.
- Goiko organoen erabakiak behekoek bete beharrekoak dira.
- Organo guztiak militanteek edo beren ordezkariak hautatzen dituzte.
- Zuzendaritza organoek hautatu zituzten batzordeen aurrean erantzungo dute.

IV. OINARRI ORGANOK

15. Artikulua: Taldea EHKn oinarrizko funtzionamendu unitatea da. Taldea erakunde eta militanteen jarduera gunearen (herria, auzoa, lantokia, ikastegia...) arteko lotura da.

16. Artikulua: Taldea gutxienez 4 militante osatzen dute eta gehienez 8k. Talde bat osatzen duten militante kopuruak bertako lan normalizatua zailtzen duenean, hau, ondo definitutako eta zehatza den esparrua eduki beharko duten, bi Talde edo gehiagotan zatituko da.

17. Artikulua: Taldeek, EHKren politika orokorren menpe, beren lurralde edo eskualde esparruan, lantze eta ekintza politiko ahalmena daukate.

18. Artikulua: Taldeen betebeharrak hauek dira:

- EHKren politika landu eta aplikatu.
- Militante berriak gehitu.
- Beren militante eta aurre-militanteak prestatu.
- EHKrentzako dirua bildu, Taldekideen kotizazioen zein ekintza espezifikoen egitearen bidez.
- Aldiro biltzea, gutxienez astean behin.

19. Artikulua: Taldeko aginte gorena biltzarra da, Talde batzorde bat aukeratuko duena, honela osatua: Arduradun Politikoa, Antolaketa Arduraduna, Baliabide Arduraduna (sozioekonomia) eta Propaganda Arduraduna, guzti hauek Taldearen jardueraren dinamizazioa beregain edukiz. Taldearen biltzarrak erantzukizun gehiago zehaztu ahal izango du. Arduradunek aldiro bai kolektiboaren aurrean bai goiko organoen aurrean hala eskatzen dutenean erantzungo dute.

20. Artikulua: Taldea EHK-ko militante maila izango ez duen eta kolektiboaren ekintzetan soilik parte hartuko duen aurre-militante zaku bat edukitzen saiatuko da, prestakuntza teorikoa eta praktikoa azpimarratuz. Taldek batzordeak NB-ari hiru hilabete baino gutxiagokoa izango ez den epe baten ostean bere ibilera politiko eta pertsonala ebaluatu ondoren aurre-militante baten sarrera eskatu ahal izango dio. Aurre-militanteak EHKn atxikimendua eskatu ahal izango du beste bi militanteren bermea baldin badauka.

V. NAZIO ZUZENDARITZA ORGANOK

21. Artikulua: "Biltzar Nazionala" da EHKren Zuzendaritza organo gorena. Nazio biltzarra, nazio batzordeak onartutako arauen arabera aukeratutako, EHK-ko Talde guztietako ordezkariak osatzen dute.

22. Artikulua: Nazio Biltzarraren funtzioak honakoak dira:

- Erakundearen ildo politikoa eta estatutuak definitu.
- Nazio batzordea zenbat pertsonak osatuko duten zehaztu eta honen kideak hautatu, bertan herrialde guztiak ordezkatuak izatea ahaleginduz.
- Irtetera doan zuzendaritzaren kudeaketa txostena eztabaidatu.



d) Bere bilakaera propioarentzako arategi bat onartu.

23. Artikulua: Nazio Biltzarra ohiko bezala Nazio Batzordeak 2 urtetik behin deituko du. Egoerak hala exijitzen badu Nazio Batzordeak Nazio Biltzarra ez-ohiko bezala deitu ahal izango du. Era berean EHK-ko militanteen erdia + 1ek ez-ohiko deialdia eskatu ahal izango dute, NB burutua izan beharko dena gehienez 3 hilabeteko epean.

24. Artikulua: Nazio Batzordea da bi Biltzar Nazionalen arteko zuzendaritza organo gorena. Bi hilabeteetik behin biltzen da gutxienez.

25. Artikulua: Nazio Batzordearen funtzioak hauek dira:

a) Biltzar Nazionalean erabakitakoaren arabera EHKren politika garatu eta estatutuak, barne demokrazia eta ekintza batasuna betetzearren beila egin.

b) Batzarra deitu eta eztabaidatuko diren txosten eta proposamenak prestatu.

c) Bere lana garatzeko eskualde batzordetan antolatu.

26. Artikulua: Nazio Batzordeak bere baitan ondo-rengo ardurak hautatuko ditu: Arduradun Politikoa, Antolaketa Arduraduna, Baliabide Arduraduna, Propaganda Arduraduna, Prestaketa Arduraduna, Euskara Arduraduna, Langile Mugimenduren Arduraduna, Gazte Mugimenduaren Arduraduna, emakume, ekologia, emigrazio eta inmigratio, etab bezalako beste arloak lez. Nazio Batzordeak, beste arduradunen artean, Arduradun Politikoa, Antolaketa Arduraduna eta Baliabide Arduraduna eta Propaganda Arduraduna izango dituen Batzorde Eragile bat izendatuko du. Hilean behin gutxienez batu beharko dena.

27. Artikulua: Batzorde Eragilea batzorde nazionalako lehenengo batzarrean aukeratuko da eta zuzendaritza organoen funtzionamendu egokiari buruzko gaietan ardura gorena da eta EHKren ordezkaritza bere gain dauka.

28. Artikulua: Nazio Batzordeko kideek, justifikatu gabe behin eta berriz ez badira azaltzen, 3 aldiz jarraian edo 6 aldiz txandaka, epe eta modu zehatzean deitutako bileretara, hautatua izan zen zerrendako hurrengoak ordezkaturiko du.

29. Artikulua: Nazio biltzarrak egoerak hala exijitzen badu Lurralde edo Eskualde Batzordeen sorrera bultzatu eta arautu ahal izango du. Batzorde hauek beren funtzioak burutuko dituzten guneen ordezkaritza daukaten biltzarretan hautatuak izango dira.

VI. IKUR ETA ERESERKIAK

30. Artikulua: EHKren ikurra igitai eta mailua dauzkan izar gorri bat gainjartzen zaion zuribeltean marraztutako ikurrina da. Euskal Herriko nazio askapen eta borroka sozialaren batasun zati-ezina irudikatzen du.



31. Artikulua: EHKren ereserkiak Eusko Gudariak eta Internazionala dira.

1
2
3
4
5
6
7
8
9
10
11
12
13
14



www.mundurat.net/ehk

ehkharremanak@mundurat.net

